

Mugen gaineratik Euskal Herria eraikitzeko xedea agertu du Jarraik Donibane-Lohizunen

Bi mila gazte abiatu dira Lapurdiko hiritik, eta hiru egunen buruan Donostiarako bidea bururatuko dute


Hur Gorostiaga / Donibane-Lohizune

Gogotsu ekin zioten bideari atzo Donibane-Lohizunen Euskal Herri osotik etorritako 2.000 gaztek. Martxoaren 20an Bilbotik abiatu taldearekin bat eginez, Hendaia heldu ziren bart arratsean Jarraiko gazteak. Gaur berriz ere pasatuko dute muga, «mugen gaineratik Euskal Herria eraikitzeko xedea» dutela adierazteko.

MUGAKO abentura gainditurik, autobus lerrokada luze bat agertu zen arratsaldeko ordu bietan Donibaneke geltoki gibelean. Bakoitza bere zakuarekin, ogitartekoa eskuan, hiru egunez Donibaneetik Hendaia, Hendaiaetik Lezora eta Lezotik Donostiarako martxa egiteko prest, ehunka gazte bildu ziren Jarrairen deiari erantzunez. Antolatzaileek ez zuten xehetasunik huts egin. Mintzaleku bat muntatu eta hitzaldian ari zirela, orduantxe heldu zen martxoaren 20an Bilbotik abiatu eta atzo goizean Saratik atera zen ehunetik gora lagun taldea. Oinetan kilometro parrasta bat zuen gazte talde horri merezitako txalo eta agurrak egin zizkionten heldu berriek.

Lehenago, lehen hitz eta txaloak Katalunia, Galizia, Irlanda eta Txiletik etorritako gazte ordezkariak izan ziren Donibane-Lohizunen. Bigarren eleak, berriz, azken hamar egunetan Euskal Herriko errepideetan 300 kilometro zeharkatu dituen aldarrikapena Lapurdiko arrantzaile herrian plazaratzeko izan ziren, independentzia eta askatasun eske «gazteon nahia eta herri honen premia baitira».

Bertsolarien ondotik, Gazteriak taldeko ordezkariak egin ziren ongi etorria, eta Jarrai zoriandu zuen 20 urtez egin lanarengatik. «Euskal Herri bakar eta bateratua dugu helburu, eta joan den irailaz geroztik Lizarra-Garaziko bidetik urrats garrantzitsua egin dugu lurraldetasunari buruz. Frantzia eta Espainiak, aldez, errepresioz



BOB EDMÉ

Jarraik Donibane-Lohizunen bildutako lagunak abiatzeko prestatzen.

erantzuten digute, bide onean gauden seinale» gehitu zuen.

Igor Ortega Jarraiko kideak ildo berari eutsi zion, eta «bi estatuen aldetik ezker abertzaleak jasaten duen eraso» gaitzetsi. «Baina kolpe bakoitzari independentziaren aldeko indarrak biderkatuz erantzunen diogu», aldarrikatu zuen.

Gaur Hendaiaetik abiatu eta, egun gutitan, Jarraik bigarren aldiz zeharkatuko du muga. «Muga fisiko eta moralak hausteko ordua da. Mugen gaineratik, Euskal Herria eraikiko dugu», adierazi zuten gazte erakunde ordezkariak.



BOB EDMÉ

Poliziak Biriatun, martxakideak Pausuan

JARRAIKO kideek uste baino arazo gutiago izan zuten atzo muga pasatzeko. Biriatuko muga Espainiar polizia leporaino —tanketa eta guzti— egonik ere, Pausuko mugatik pasatzea erabaki zuten 30 autobusek. Bertara heldu, eta hamar bat polizia

besterik ez zen mugazain lanetan. Poliziek autobusei pasatzen ez uzteko xedea agertu zuten, eta Arnaldo Otegi eta Jon Salaberria Euskal Herriarrok taldeko parlamentarioak agertu ziren, polizi arduradunekin mintzatu nahirik.

Bizkitartean, gaz-

teak autobusetatik jaitsi, eta oinez zeharkatu zuten muga, poliziei kasurik egin gabe. Muga pasatuta, autobusera berriz igo eta Donibane-Lohizuneko bidea hartu zuten. Autobidea Biriatun berriz hartzerakoan, Biriatun baina mugaz bestaldean poli-

ziak prestatutako harrera komitea ikusi ahal izan zuten. Donibane-Lohizuneko mintzaldian, «txakurrak baino askoz argiago» ibili zirela adierazi zuten Jarraiko ordezkariak, Euskal Herrian aske bizi eta ibiltzeko eskubidea aldarrikaturik.

Permach: «Jarraik iraun egin behar du ideia abertzaleak etorkizunera iristeko»

Erredakzioa / Donostia

JARRAI gazte erakundeak garatuz doan heinean bermatuko da etorkizuneko ideia abertzaleak irautea, HBko bozeramaile Joseba Permachek atzo adierazi zuenez. «Horixe da Espainiako Gobernuak eragotzi nahi duena, eta horixe da abertzale sentitzen den orok zaindu behar duena», gaineratu zuen Permachek.

Espainiako Gobernuaren «politika errepresiboa» Jarrai jomugan» ipini duela salatu zuen Joseba Permachek, eta Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroak eratuako politika polizial-militarraren helburu nagusia dela gazte erakundeak. Mayor Oreja Barne ministroak eta nazionalismo espainolak «beldurra» diote «etorkizunaren aurpegia den Jarrairi», Joseba Permachen irudikoz: «Euskal Herriko gazte erakunderik handiena den honetatik aterako baitira etorkizuneko buruzagi politikoak, eta buruzagi horiek zehaztuko baitute zein izango den une bakoitzari dagokion borroka mota».

Donostiako biharko ekitaldirako deia

«Izpiritu, indar eta ideia abertzaleak dituen orok bultzatu behar ditu Jarraiko gazteak Donibane-Lohizunetik Donostiarako bidean», esan zuen Permachek. HBko mahaiakideak dei egin zuten abertzale guztiei, bihar Donostiako belodromoan Jarrai erakundeak antolatuko duen ekitaldietan parte hartzeko. «Jarraiko militanten batez besteko adina igo egin behar dugu larunbat honetan», adierazi zuen.